**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2013KO MAIATZAREN 3AN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako udaletxean, 2013ko maiatzaren 3ko goizeko 08:10ak zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez alkate jaunaren (O.E. BILDU) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Luis Mª Diez Gabilondo.
- Jon Txasko Orgilles.
- Miren Alazne Korta Zulaika.
- Irune Balenciaga Arrese.
- Garazi López de Echezarreta Auzmendi.(Denak O.E. BILDU taldekoak)
- Jose Manuel Ferradas Freijo (EE)

Bertan dago eta egintza fedatu du Begoña Bueno Barranco idazkari nagusiak.

**1. Gobernu Batzarrak 2013ko apirilaren 19an eginiko ohiko aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Idazkariak 2013ko apirilaren 19an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri ondoren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

**E R A B A K I D U**

Onartzea 2013ko apirilaren 19an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

**2. Santiago Ansareo Ansareo Jaunari, "ANSAREO SANEAMIENTOS SERVICIOS, S.A."-ren izenean dihardunari, "Udaletxea, Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa garbitzeko zerbitzua" izeneko kontratua ADJUDIKATZEA.**

2012ko abenduaren 5eko Alkatetzaren

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA EL DÍA 3 DE MAYO DE 2013**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 08:10 horas del día 3 de mayo de 2013, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde D. Julen Mendoza Pérez (O.E. BILDU), los siguientes Concejales:

- Luís Mª Díez Gabilondo.
- Jon Txasko Orgilles.
- Miren Alazne Korta Zulaika.
- Irune Balenciaga Arrese.
- Garazi López de Echezarreta Auzmendi. (Todos del grupo O.E. BILDU).
- Jose Manuel Ferradas Freijo (EE)

Asiste y da fe del Acto la Secretaria General Begoña Bueno Barranco.

**1. Lectura y aprobación, en su caso, del Acta correspondiente a la sesión, ordinaria de fecha 19 de abril de 2013.**

Leída por la Secretaria el Acta correspondiente a la Sesión ordinaria de fecha 19 de abril de 2013.

La Junta de Gobierno Local por unanimidad,

**A C U E R D A**

Aprobar el Acta correspondientes a la Sesión Ordinaria de Junta de Gobierno Local de fecha 19 de abril de 2013.

**2. Adjudicación del "Servicio de limpieza de la Casa Consistorial, Servicios Sociales y Policía Local" a D. Santiago Ansareo Ansareo, en representación de "ANSAREO SANEAMIENTOS SERVICIOS, S.A.".**

Visto que por Resolución de Alcaldía de

Ebazpenaren bidez espedientea ireki zen "Udaletxea, Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa garbitzeko zerbitzua" prozedura irekiaren bidez (hainbat irizpide) kontratatzeko.

Baliozko epean sei (6) proposamen aurkeztu dira: "LIMPIEZAS ETXEGAR, S.L."; "EULEN, S.A."; "KELSALIM ZERBITZUAK, S.L."; "ANSAREO SANEAMIENTOS SERVICIOS, S.A."; COMERCIAL DE LIMPIEZA VILLAR, S.A." eta "UNION INTERNACIONAL DE LIMPIEZA, S.A. (UNI2)".

2013ko apirilaren 15eko Kontratazio Mahaiaren akordioak proposatu zuen Santiago Ansareo Ansareo-ri, "ANSAREO SANEAMIENTOS SERVICIOS, S.A."-ren izenean adjudikazio-hartzaile gisa. Izan ere, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita.

2013ko apirilaren 16ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, Santiago Ansareo Ansareo Jaunari, "ANSAREO SANEAMIENTOS SERVICIOS, S.A."-ren izenean eskatu zitzaion, "Udaletxea, Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa garbitzeko zerbitzua" kontraturako proposatutako adjudikazio-hartzailea denez, hamar (10) laneguneko epean lizitazioa arautzen duen baldintza-agiriaren 15. Klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez zezan.

Interesatuak 2013ko apirilaren 29an eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita 17.825,28 euroko zenbateko behin betiko bermea ere.

Kontratzio-mahiako buruaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

**E R A B A K I D U**

fecha 5 de diciembre de 2012 se incoó expediente para la contratación del "Servicio de limpieza de la Casa Consistorial, Servicios Sociales y Policía Local" mediante procedimiento abierto (varios criterios).

Visto que en el plazo hábil se han presentado seis (6) proposiciones, correspondientes a "LIMPIEZAS ETXEGAR, S.L."; "EULEN, S.A."; "KELSALIM ZERBITZUAK, S.L."; "ANSAREO SANEAMIENTOS SERVICIOS, S.A."; COMERCIAL DE LIMPIEZA VILLAR, S.A." y "UNION INTERNACIONAL DE LIMPIEZA, S.A. (UNI2)".

Visto el acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 15 de abril de 2013, proponiendo como adjudicatario del contrato a D. Santiago Ansareo Ansareo, en representación de ANSAREO SANEAMIENTOS SERVICIOS, S.A. al ser la más ventajosa para los intereses públicos.

Visto que mediante Resolución de Alcaldía de fecha 16 de abril de 2013 se requería a D. Santiago Ansareo Ansareo, en representación de "ANSAREO SANEAMIENTOS SERVICIOS, S.A.", adjudicatario propuesto del contrato para el "Servicio de limpieza de la Casa Consistorial, Servicios Sociales y Policía Local", para que en el plazo de diez (10) días hábiles aportara la documentación indicada en la cláusula 15ª del pliego de condiciones que rige la licitación.

Visto que el interesado ha aportado con fecha 29 de abril de 2013 la documentación requerida y una garantía definitiva por importe de 17.825,28 euros.

A propuesta de la Presidenta de la Mesa de Contratación.

La Junta de Gobierno Local por unanimidad,

**A C U E R D A**

1. Santiago Ansareo Ansareo Jaunari, “ANSAREO SANEAMIENTOS SERVICIOS, S.A.”-ren izenean diharduenari, “Udaletxea, Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa garbitzeko zerbitzua” izeneko kontratua ADJUDIKATZEA, 431.372,01 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), kontratu osorako, hau da, 2013ko ekainaren 1etik hasita 2014ko uztailaren 31 arte, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena izateagatik.

2.- JAKINARAZTEA adjudikazio- hartzaile izan ez diren lizitatzaile guztiei.

3.- Esleipendunari eskatzea 10 eguneko epean, esleipenaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, Udaletxera etortzeko kontratua sinatu dadin administrazio dokumentuan.

4.- Kontratuaren esleipena argitaratzea Errenteriako udalaren kontratatzailearen profilean, GAO-n eta EBAO-n iragarkia ipinita.

5. Alkatea espresuki ahalmentzea administrazio kontratua sinatzeko.

----------------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 08:20 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

1º.- ADJUDICAR a D. Santiago Ansareo Ansareo, en representación de “ANSAREO SANEAMIENTOS SERVICIOS, S.A.”, el contrato para la prestación del “Servicio de limpieza de la Casa Consistorial, Servicios Sociales y Policía Local”, al ser la más ventajosa para los intereses públicos, por un importe de 431.372,01 euros (IVA incluído), para la totalidad del contrato, que será desde el 1 de junio de 2013 hasta el 31 de julio de 2014.

2º.- NOTIFICAR la adjudicación a todos los licitadores que no han resultado adjudicatarios.

3º.- REQUERIR asimismo al adjudicatario para que en el plazo de 10 días a contar desde el siguiente a la notificación de la adjudicación, concurra ante este Ayuntamiento para la formalización del contrato en documento administrativo.

4º.- PUBLICAR la adjudicación del contrato mediante anuncio en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Errenteria, así como en el BOG y DOUE.

5º.- AUTORIZAR expresamente al Sr. Alcalde-Presidente, para la firma del contrato administrativo.

---------------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 08:20 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.